



## ALEX TXIKON MANASLUKO (8.163m) OINARRIZKO KANPAMENTURA IRITSI DA NEGUAN LEHEN ALDIZ KOROATZEN SAIATZEKO

- Alpinista bizkaitarra oxigeno artifizialik gabe planetako zortzigarren mendirik altuena koroatzen saiatzen den hirugarren urtea da.
- Taldearekin batera, Simone Moro eskalatzaile italiarra egongo da, urtarrilean harekin bat egingo duenak
- Aurten, berrikuntza gisa, Oinarrizko Kanpamentua 3.700 metrora jarri dute (azken bi espedizioetan baino 1.200 metro beherago), elurte eta elur-jausi handietatik babestuago egoteko

**Bilbon, 2022ko abenduaren 26an.-** Alex Txikon alpinista bizkaitarrak #MANASLU proiektua abiarazi du, neguan eta oxigeno artifizialik gabe Manaslura (Nepal) igotzeko asmoarekin. Manaslu munduko zortzigarren mendirik garaiena da, 8.163 metroko altuerarekin.

Manaslu bertatik bertara ezagutzeko bi saiakera egin ondoren, 2023an mendialdea konkistatzen saiatuko da, orain arte neguko espedizio batek inoiz koroatu ez duena. Txikon, gaur bertan Oinarrizko Kanpamentura heldu da bere taldearekin batera eta hurrengo egunotan Simone Moro italiarra batuko zaie. Txikonek, beste behin, Nepalgo 6 eskalatzaile izango ditu kordada lagun gisa, horien artean nabarmentzekoak dira, bestek beste, Chhepal Sherpa edo Pasang Sherpa, aurrekoetan ere berarekin egon direnak.

Aipatzekoa da, lehenengo egun hauetan Pasang Themba beraiekin egongo dela, 1980ko maiatzaren 14an Martin Zabaletarekin Everestera igo zen 71 urteko eskalatzaile nepaldar eskarmentuduna, hain zuzen ere. Txikonek berak azaldu duenez, orain dela egun batzuk, garun-paralisia duen Javier López Zallako bizilagunarekin Everesteko Oinarrizko Kanpamentura egindako azken trekinga amaitu duenean, Pasang Themba bisitatu du nahi izan du bere herrian (Lukla). Baina egonaldi horretan, zerbait ondo ez zihoala egiaztatu zuen. *“Bisitan, Pasangek zituen entzumen-arazoak lekuko izan nintzen, eta zalantzarik gabe, gurekin jaistera animatu genuen mediku bat bisitatzeko xedez. Azkenik, irribarrea eta bizitzeko gogoak itzuli dioten audifonoak jarri dizkiote. Hainbeste, non astebetetz Manaslura laguntzea erabaki duen”.*





Muturreko tenperaturak, haize bortitza, elur ugari... Jakina da neguko espedizioak oso gogorak direla eta, beraz, ahalik eta lasterren igotzen hastea da helburua. Behin Oinarrizko Kanpamentuan, elur-jausiak eragin ditzakeen arriskuak saihesteko xedez 3.700 metroan ezarri dena (aurreko bi espedizioetan baino 1.200 metro beherago), altuera irabazten hasiko dira pixkanaka. Txikonek berak adierazi duenez, *“Manasluko gailurrera iritsi zen lehen japoniar espedizioak bere Oinarrizko Kanpamentua altuera horretan ezarri zuen, hortaz, gauza bera egingo dugu, aurreko neguko elurteak bezalako elurte handiak edota haize bortitzak baleude geure burua babesteko xedez”*.

Ildo horretan, urtarrilak aurrera egin ahala, baldintza klimatologikoak zaildu egiten dira. Gogoratu behar da iaz, elurte handien ondorioz, taldeak gauak eman zituela elurra jotzen eta 5 metro baino gehiagoko altuerako eustormak eraikitzen, elurrak erabat estali ez zitzaizkion. *“Elurrak aurreko neguan 7.000 metrora iristea eragotzi zigun; izan ere, 5.000 metro baino gehiagora urrats bakoitza ekintza gogoangarri bat da. Halere, gailurrera ez heltzea ez da porrota; porrota ez itzultzea da, eta gailurra talde osoa Oinarrizko Kanpalekura onik itzultzen denean lortzen da”* adierazi du Alex Txikonek.

Gauzak horrela, Kanpamentuan daudenean Taldea, Manaslura mendebaldeko zonaldeetik igotzen saiatuko da, 2021an ikusi zutenaren arabera hori baita ibilbide bideragarri bakarra garai horretan.

### Elkartasunaren eta iraunkortasunaren aldeko apustu berri bat

Aurten ere, elkartasunarekin eta ingurumenarekin duen konpromisoaren ildotik, Alexek kirol-erronkatik haratago eramango du bere espedizioa, bertako biztanleei laguntzen saiatuz. Beste behin, SOS Himalayarekin eta UDANA Nepalekin elkarlanean arituko da, Asiako herrialdean jarduten duten bi euskal erakunderekin, hain zuzen ere. Alexek urteak daramatza horiekirekin lanean.

Zentzu horretan, alpinistak iraunkortasunaren aldeko apustua egin du berriz ere eta Pakistanen edo Sierra Leonan egin zuen bezala, bere ekipajea EKI Fundazioak utzitako hainbat eguzki-plaka eramango ditu (erakunde bizkaitar honekin hainbat urte daramatza Planetako tokirik apartekoenetara argia eramateko elkarlanean). Gauzak horrela, Oinarrizko Kanpamentuan egingo duen egonaldiako aurreikusten den hilabete eta erdian, taldeak eguzkiaren energia garbia eta agortezina aprobetxatuko du elektrizitatea sortzeko, energia-sorgailuen erabilera saihestuz eta ingurumenean ahalik eta inpaktu txikiena bilatzen saiatuz. Espedizioa amaitutakoan, gainera, asmoa da eguzki-plaketako bat inguruko ikastetxe bati ematea tokiko GKE baten bidez.





**WINTER**  
SUMMITS

Aipatzekoa da ere, lan guztia profesional batek dokumentatuko duela argazki eta bideo euskarrian. Material hori guztia gerora ikus-entzunezko lan bat egiteko balioko du, baita proiektu hau ahalbidetzen duten markentzako material grafiko guztia sortzeko ere.

### INFORMAZIO GEHIAGO ETA ELKARRIZKETAK:

BIOK COMUNICACIÓN ESTRATÉGICA

Naroa Hernansanz // [naroa@biokcomunicacion.com](mailto:naroa@biokcomunicacion.com) // 688 64 56 51

### MATERIAL GRAFIKOA

<https://prensa.alexixikon.com/>

Erabiltzailea: prensa2021

Pasahitza: txikonmanaslu2022\*

